



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 27a

149. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).
- Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei arreta eta babes eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, zenbait fundazioren zuzendaritza organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (4. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Interpelazioa, Ingurumeneko Basozaintzako Zerbitzuaren eskumen-esparruaren eta araubidearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (5. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak darabilen industria politikari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako erakundeak eta gizartea premiatzen dira Kolonbiako protesta baketsuen aurkako errepresioa gaitzets dezaten. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da eSports Plan Estrategiko bat diseina dezan eta industria hori Nafarroako Foru Komunitatean garatu dezan. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Energiaren Gutunari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroan Eliza Katolikoaren izenean immatrikulatutako finkei ondasun higiezin gainera zerga aplikatzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Lezkairuko eta Mendebaldeko haur eskoletako euskarazko eskaintzari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean artatzeko profila zuten barne-medikuntzako sendagileak kontratatzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aldi baterako programatu ezin den ebakuntza jaso behar duten gaixoen kopurua 2021eko martxotik uztaile bitarte handitu izanari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, kontsultarako itzarote-zerrendetako pertsonen kopurua 2020ko martxoan jaitsi izanari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, B eranskinetan inplikaturako profesionalen konfidentzialtasuna bermatzeko babesei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).
- Galdera, egoera irregularrean dauden pertsonen egindako “hitzordu-tranpei” buruzkoa. Galdera erretiratzeari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, irakasle eta ikertzaile funtzionarioen eta kontratatuen lanpostuetarako lehiaketetan emakumei laguntzeko diskriminazio positiboaren printzipioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Mahaiaren 2020ko abenduaren 1eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea (17. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 6/2021 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gainera Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Logopeden Elkargoa sortzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2022ko urtarrilaren 17ko eguerdiko**

hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2021eko abenduaren 13ko 142. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/LEY-00012).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2022ko urtarrilaren 17ko eguerdi-**

ko hamabiak arte luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2021eko abenduaren 14ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/LEY-00013).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zenbait fundazioren zuzendaritza organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Zenbait fundazioren zuzendaritza organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2022ko urtarrilaren 19ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu

foru lege proposamena 2021eko abenduaren 1eko 138. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/PRO-00015).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Ingurumeneko Basozaintzako Zerbitzuaren eskumen-esparruaren eta araubidearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko interpelazioa, Ingurumeneko Basozaintzako Zerbitzuaren eskumen-esparruaren eta araubidearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidez.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa De Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, kontroleko kasuko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sar dadin.

Nafarroako Gobernuak besteak beste honako hau erantzun zuen Foruzaingoari buruzko Plan Zuzendariari, Foruzaingoarekiko harremanei eta ingurumenaren eta ondare historikoaren arloko delituak ikertzeko eta jazartzeko Ingurumena Zaintzeko Atalaren eskumen-esparruari buruzko informazioa eskatzen zuen galdera idatziari (PES 016) emandako erantzunean: “Nafarroako Gobernuak, Barne Zuzendaritza Nagusiak eta Foruzaingoa oso kontuan hartzen dute Basozainen Zerbitzuak eta Ingurumen Babeserako Brigadak elkarren arteko lankidetzeta eta koordinazio bizia eta etengabea izan behar dutela, kalitatezko zerbitzu eraginkorra eskaini ahal izateko. Foruzaingoa gizartearen zerbitzuan ari da, segurtasu-

na eta laguntza bermatuz eta gizartearen eskari eta itxaropenei erantzunez polizia-zerbitzu hurbil, proaktibo eta kalitatezkoaren bitartez. Lanean jarraitzen du ingurumen alorreko delituak zaintzen eta ikertzen eta halakoei aurrea hartzen, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuarekin erabat koordinaturik”.

Ekainean, bestalde, Ingurumen Zaintzaren Zerbitzuko zuzendariak “Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuaren arteko ingurumenaren arloko lankidetzarako esparru-akordioa” aurkeztu zien zerbitzuko langileei. Akordio horretan orobat ezartzen dira Foruzaingoko Ingurumena Babesteko Brigadaren eta Ingurumena Zaintzeko Atalaren arteko harremanak. V. apartatuan ezarritakoa ikusita –“Delituak ikertu eta izapidetzeko lan-prozedura normalizatua eskumenekoak diren gaietan”–, Ingurumena Zaintzeko Atala Foruzaingoaren mende dagoela pentsa liteke.

Hori dela-eta, CCOO sindikatuak Estatuko Fiskaltza Nagusira jo zuen, testu hori legezkoa ote den galdetzeko. 232/2021 Gobernu-espeditentearen bidez, Ingurumeneko eta Hirigintzako Salako Fiskaltzak auzia ebatzi zuen; halatan, Ingurumena Zaintzeko Atalari babesa eman zion, eta ingurumenaren aurkako delituak ikertzean eta jazaritzean aplikatu beharreko araudia bildu zuen.

Nafarroako Foru Komunitateak ingurumeneko basozaintza zerbitzuari zer eginkizun dagozkion ezartzeko eskumena du; aldiz, ez du eskumenik zerbitzu horretako langileei agintaritzaren agente izaera aitortzeko, aitortza hori Estatuko araudiaren bidez egin behar delako.

Hori dela-eta, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistotik Ingurumeneko Basozaintza Zerbitzuaren eskumen-esparruari buruzko politika

orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari, eta zehazki honako hauei buruzkoa:

– Ingurumena zaintzeko eginkizunak eta ingurumenaren aurkako delituen ikerketa eta jazarpena.

– Beste eragile batzuekiko harremana eta koordinazioa (bereziki, Foruzaingoarekiko).

– Basozainen prestakuntza eta basozainak segurtasun eskolaren prestakuntza planetan sartzea.

– Basozainen legezko izaera eta juridikoa.

Iruñean, 2021eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak darabilen industria politikari buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuak darabilen industria politikari buruz Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroan ehuneko ia 30ekoa izan da industriako BPGa (Espainiako altuenetako bat). Industrian sakoneko aldaketak gertatzen ari dira gaur egun, bere prozesu guztietan bai ala bai egin beharreko digitalizazioa dela-eta, bai eta nahitaez egin beharreko deskarbonizazioa eta azken horren ondoriozko trantsizio energetikoa direla-eta.

Horregatik guztiagatik, industria politikari buruzko interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari.

Iruñean, 2021eko abenduaren 16an

Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-politika orokorrari buruz José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpela-

zioa 2021eko urriaren 22ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-21/ITP-00074).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez Nafarroako erakundeak eta gizartea premiatzen dira Kolonbiako protesta baketsuen aurkako errepresioa gaitzets dezaten.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako erakundeak eta gizartea premiatzen baitira Kolonbiako protesta baketsuen aurkako errepresioa gaitzets dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute,

2022ko urtarrilaren 20ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak kezka handiz jaso ditu Kolonbian egun dagoen egoerari buruzko berriak, adierazten baitute neurritz kanpoko errepresioa izan dela Kolonbian modu baketsuan garatutako protesta sozialen aurka eta indar publikoak giza-eskubideen urraketa larriak burutu dituela herrialde osoan zehar mobilizazioak hasi zirenetik.

Nazio Batuen Erakundeak Kolonbian duen Goi-komisarioaren Bulegoak, Giza Eskubideen Batzorde Inter-amerikarrak, Amnistia Internazionalak eta giza-eskubideen aldeko beste erakunde askok beren kezka adierazi dute, txostenak ikusi ondoren, zeinetan egiaztatzen baita su-armak eta kolpeak erabili direla eta atxilotetak izan direla, eta horien ondorioz erailketak, desagerpenak eta sexu-indarkeria gertatu direla.

Herriaren Defentsa Bulegoaren zifra ofizialen arabera, lanuzte nazionalean zehar 42 manifestari hil dira. Halaber, 168 pertsona jo dira desagertutzat, eta giza-eskubideen aurka ustez izandako urradurengatik 104 kexa jaso dira.¹ 1.106 lagun atxilotu ditu Polizia Nazionalak 2021eko apirilaren 28tik maiatzaren 25era arteko lanuzte nazionalean, Polizia Nazionalak Cuestión Pública hedabi-

deari emandako zenbatekoari eta atxilotutako pertsonen zerrendari jarraituz, 110013109043-2021-0118-00 tutoretza-epaiaren barruan.²

Halaber, kezkarri zaizkigu kazetarien aurka-erasoei buruz Temblores eta Indepaz GKEek egindako txostenak, non biltzen diren 195 eraso fisiko, atxiloketa arbitrarioak eta kazetaritzako materialaren suntsiketa indar publikoaren aldetik. Era berean, giza-eskubideen defentsako 95 pertsonen erasoak pairatu dituzte giza-eskubideen urraketan biktimei laguntza ematen zietenean, are Nazio Batuen giza-eskubideen ordezkari bat ere, bere eginkizuna betetzen ari zenean; gertaera hori entitateak berak helarazi zuen Twitter sare sozialaren bidez, maiatzaren 3an. Mezu horretan Nazio Batuen Erakundearen ordezkariak azaldu zuen mehatxuak eta erasoak jasan zituztela, bai eta tiroak ere Kolonbiako poliziaren aldetik, ordezkariak inongo kide jo ez bazuten ere.³

Maiatzaren 25ean, Giza Eskubideen Batzorde Inter-amerikarrak bilera telematikoa egin zuen Herriaren Defentsa Bulegoarekin “aztertze aldera giza-eskubideen egoera, manifestazioen testuinguruan. Une horretan, Batzordeak berretsi zuen bere lan-bisitaren garrantzia, ikusita giza-eskubideen urraketa batzuei buruzko informazioa” (CIDH - IACHR, Twitter @CIDH, 22:53 - 26 may.21). Kolonbiako Gobernuak uko egin dio Giza Eskubideen Batzorde Inter-amerikarra -kontinente amerikarrean giza-eskubideen sustapenaz eta babesaz arduratzen den erakunde- bisitan hartzeari.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako gizartea eta erakundeak, oro har, premiatzen ditu gaitzets dezaten apirilaren 28tik, muturreko indarkeriaren testuinguruan, Kolonbian gertatzen ari den protesta baketsuen errepresioa, eta manifestarien giza eskubideen urraketak zigorrik gabe gera ez daitezen, eta azkar eta egoki iker daitezen, xede horretarako behar diren mekanismo eta tresnekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Kolonbiako Gobernuak premiatzen du, lehentasunez has dadin

indarkeria deseskalatzen eta hiriak desmilitarizatzen, eta berehalako neurriak har ditzan bermatzeko eta errazteko deitutako protesta-egunetan bilera baketsuak egiteko eskubidea eta manifestarien osotasun fisikoa eta psikologikoa, neurri horiek giza eskubideen nazioarteko estandarretan ezarrita baitaude.

3. Nafarroako Parlamentuak nazioarteko komunitatea premiatzen du, egiazta dezan behar diren neurriak hartzen ote diren giza eskubideen defendatzaileen protesten ziurtasuneko arreta bermatzeko, bai eta kazetarien eskubidea ere, adierazpen askatasuna gauzatzeko gune eta maila ezberdinetako elkarrizketa- eta negoziatio-eskenatoki batetik, protesta horien jatorrian metatutako arazoak ekite aldera. Elkarrizketa-prozesu adostu bat izanen da, irekia eta anitza, mobilizazioak sustatu dituzten lurraldeen, erakundeen eta sektoreen eskarrietan oinarritua.

4. Nafarroako Parlamentuak erakunde guztiak eta Nafarroako gizartea premiatzen ditu Kolonbiako herritarrei lagundu diezaieten Nafarroan mobilizatzen beren herriaren gizarte-eskubideen alde, protesten kriminalizazioaren ondorioak pairatu dituzten eta pairatzen dituzten familia eta pertsona guzteei elkartasuna adieraziz, biktimenzako justiziaren alde eta giza eskubideen urraketak berriz ez gertatzeko bermeen alde, Lanuzte Nazionalaren esparruan eta Kolonbiako Estatua- ren eta FARCen gerrillaren artean sinatutako bake-akordioak betearaziz.

Foru parlamentariak: Blanca Regúlez Álvarez, Bakartxo Ruiz Jaso, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

1 <https://www.rtve.es/noticias/20210512/colombia-defensoria-pueblo-eleva-cuarenta-dos-victimas-mortales/2089610.shtml>

2 <https://cuestionpublica.com/explora-lista-capturados-en-el-pais-paro-nacional/>

3 <https://www.larepublica.co/economia/onu-denuncia-amenazas-y-agresiones-contra-mision-de-derechos-humanos-en-cali-3163987>

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da eSports Plan Estrategiko bat diseina dezan eta industria hori Nafarroako Foru Komunitatean garatu dezan.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eSports Plan Estrategiko bat diseina dezan eta industria hori Nafarroako Foru Komunitatean garatu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eSports Plan Estrategiko bat diseina dezan eta industria hori Nafarroako Foru Komunitatean garatu dezan.

Kirol elektronikoaren industria –eSports– modu esponenzialean hazi da azken urteotan, lehiaketa- eta aisialdi-jarduera globala bihurtzeraino, bai eta etorkizuneko negozio-eredu berri eta indartsua ere.

Teknologiak egindako aurrerabideari esker eta teknologia herritarren etxeetan sartu izanari esker, jokoak, etxeetan, ez da jada erabiltzaile edo familia bakar bati loturik ageri, jokalarien eta ikusleen arteko jarduera koral bihurtu baita. Gure gazte askok erabiltzaile eta ikusle horiek osatzen duten erkidego hori baliatzen dute gaur egun harremanetan jartzeko, halako moduan non horien eguneroko bizitzaren, horien lagunen eguneroko bizitzaren eta horien harreman sozialen eredu berrien parte izatera pasatu baita.

Kirol elektronikoaren negozio-bolumena ia 35 milioi eurokoa da gaur egun Espainian, sektorea azken lau urteotan ehuneko 140 baino gehiago hazi baita. Mundu-mailan, kirol elektronikoaren sektoreak 94,7 milioi euroko diru-sarrerak izan ditu 2020an, pandemia gorabehera, eta 2024an 1.600 milioi dolar baino gehiagoko diru-sarrerak izatera helduko dela uste da.

Hori dela-eta, komunikazio-talde, kirol tradizio-naletako ekipo eta figura mediatiko askok sektore horren aldeko apustua egitea erabaki dute; sektoreak, izan ere, 443 milioi ikusle biltzen ditu mundu osoan, pandemiaren aurreko urtean –2019an– baino ehuneko 12 gehiago. Emakumezkoek ere lagundu dute sektoreak Espainian bultzaldi handi hori izan dezan, emakumezkoek audientziaren ehuneko 36 egiten baitute. Halatan, Espainia 12. tokian dago munduko rankingean, biztanle-kopuruan hogeita hamargarrena izan arren.

Interes ekonomiko eta sozialeko datu horiek mahai gainean, argi dago erakunde publikoek ezin diotela bizkarra eman gazteen artean gero eta indar handiagoa duen garapen sozial eta ekonomikoko eragile berri horri, zeina garrantzi bereziko eredu sozioekonomiko izateko geratzera etorri baita. Halaber, banaka nahiz taldean egin daitekeen kirol bat den aldetik, nabarmendu egin beharra dago bertuteetan prestakuntza ematen diela gazteei, zeinek, beste diziplina batzuetan bezala, hainbat balio hartzen baitituzte; esaterako, kiroltasuna, ahalegina, norik bere mugak gainditzea, errespetua, berdintasuna, laguntasuna edo elkartasuna. Hori dela-eta, ez da harrizkoa kirol tradizio-naletako zenbait talde eta klubek kirol elektronikoaren alde apustu egin izana, jarraitzaileekiko harremanak sustatzen jarraitzeko eta euren erkidegoa zabaltzeko.

Gurera etorrira, Nafarroako Unibertsitate Publiko irakasle Iván Pérezen esanetan kirol elektronikoaren sektoreak 150.000 euroko diru-sarrerak eragin zituen 2019an; diru-sarrera horiek ehuneko 80 jaitsi ziren 2020an, eta aurten, berriz, ehuneko 5 igo dira berriro ere. Portzentaje hori txiki samarra da, Espainia osoan eragiten duten 35 milioiko diru-sarreraren aldean. Egia da badirela zenbait ekimen –foru erkidegoan egin berri den Pamplona Play Fest, adibidez– kirol elektronikoak bultzatzeko, sustatzeko eta hedatzeko balio dutenak,

baina ekimen oro dira inoiz baino beharrezkoagoak Espainiako beste erkidego batzuen aldean oraindik ere ondu gabe dagoen diziplina hori Nafarroan bultzatzeko.

Nafarroako Foru Komunitatean sektorearekiko interes gero eta handiagoa dago; hori dira, esaterako, kirol elektronikoaren balio sozial eta hezkuntza-balioei buruz New Age Learning-ek garatutako programa arrakastatsua edo Club Atlético Osasuna jokalaririk profesional Rubén Garcíak Guasones Team bere ekipoarekin egindako apustu mediatikoagoa. Ekimenak askoz ere gehiago izan litezke, sektore publikoaren eta erakundearen babesa handiagoa izan balitz.

Hortaz, ezinbestekoa da kirol elektronikoaren diziplinaren aldeko apustu argi eta irmoa egitea, sektore horren garapen ekonomiko eta enpresariala bultzatzeko, sektorean eragin zuzena duten hezkuntza-arloei dagokienez herritarrak –eta bereziki, gazteak– prestatzeko, sektorea foru erkidegoan garatzea errazteko behar den legeria zertzeko, eta kirol elektronikoaren merkaturaren inplikaturak dauden eragile nafarren talentua erakartzeko eta atxikitzeko.

Horregatik guztiatik, Navarra Suma talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari prestatzeko

1. Behar diren lege- nahiz erregelamendu-neurriak abiaraz ditzan, Nafarroan kirol elektronikoaren sektorea arautzeko, haren errealitatea eta beharriak aintzat hartuta.

2. Kirol Elektronikoaren buruzko Plan Estrategikoa bultzatzea, diziplina hori garatzeko, sustatzeko, prestatzeko eta ezagutzeko, bai eta Nafarroako Foru Komunitatean talentua atxiki eta erakartzeko ere.

3. Kirol elektronikoaren sektorearekiko lankidetzaren bultzatzea, lehiazteko moduko tokian paratzeke, haren hazkundea babesteko, egun dauden enpresak jasangarri egiteko eta nazioko nahiz nazioarteko kapitala Nafarroara erakartzeko.

4. Jada indarrean dagoen prestakuntza-eskaintza diseinatu eta hobetu dezan Hezkuntza Departamentuarekin, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuarekin eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin lankidetzan, kirol elektronikoaren sektorearen garapena eta produktzioa, jarduera eta balioak bultzatzeko.

Iruñean, 2021eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

F saila:
GALDERAK

Galdera, Energiaren Gutunari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Energiaren Gutunari buruz Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urtarrilaren 13ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Energiaren Gutuna nazioarteko akordio bat da; ez da oso ezaguna, baina oso arriskutsua da klima-politikei begira, erregai fosiletan eginiko inbertsioak babesten dituelako.

Nafarroako Gobernuak nola egiten ditu bateragarri Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea eta akordio hori?

Iruñean, 2021eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroan Eliza Katolikoaren izenean immatrikulatutako finkei ondasun higiezin gainera zerga aplikatzeari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan Eliza Katolikoaren izenean immatrikulatutako finkei ondasun higiezin gainera zerga aplikatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak, ikerketa sakon eta zehatza egin ostean, Eliza Katolikoak immatrikulatutako ondasunei buruzko informazioa igorri dio Nafarroako Parlamentuari, honek informazio hori eskatu eta gero. Ikertutakotik ondorioztatzen da Nafarroako Eliza Katolikoak gutxienez ere 2.952

finka immatrikulatu dituela guztira foru erkidegoan; horietako asko, Hipoteka Legean ezarritako aparteko mekanismoa baliatuta, zeinaren arabera aski baitzen elizak berak ziurtagiria egitea immatrikulazioa gauzatzeko.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Departamentuak ondasun higiezinaren gaineko zerga aplikatuko al die Nafarroan Eliza Katolikoaren izenean immatrikulatutako finka guztiei, kontuan hartuta ez daudela gurtzara atxikirik?

Iruñean, 2021eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Lezkairuko eta Mendebaldeko haur eskoletako euskarazko eskaintzari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Lezkairuko eta Mendebaldeko haur eskoletako euskarazko eskaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

HE Gurasoak plataformak 380 eskabide aurkeztu zituen oraintsu Hezkuntza Departamentuan, Mendebaldea eta Lezkairuko haur eskolen eskaintza euskarazkoa izan dadin.

Agirian ziotenez, "haur eskola publikoen hizkuntza-ereduen banaketa geografikoaren mapa ikusi besterik ez dago, auzo horietan euskara bazter geratzen dela ohartzeko".

Hezkuntza plangintzaren ardura Hezkuntza Departamentuarena dela ikusita, honako hau galdetzen diot departamentuari:

- Kontseilariak zer uste du eta zer erantzun emanen dio eskari horri?

Iruñean, 2021eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean artatzeko profila zuten barne-medikuntzako sendagileak kontratatzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean artatzeko profila zuten barne-medikuntzako sendagileak kontratatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Nafarroako Ospitale Unibertsitarioak etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean artatzeko profila zuten barne-medikuntzako sendagileak kontratatu zituen 2017an eta 2018an. Kontratazio horiek justifikatu ta zeudela uste al du Osasun Departamentuak?

2.- Osasun Departamentuak kontratazio horietako eskakizun berberak exijitu al ditu legegintza honetan etxeko ospitalizaziorako edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitatean jarduera asistentziala egin duten barne-medikuntzako sendagileen kasuan?

3.- Hala izan ez bada, eta kontuan hartuta departamentuak gero ez diela halakorik exijitu Nafarroako Ospitale Unibertsitarioaren etxeko ospitalizazioko edota gaixo kroniko eta pluripatologikoen unitateko jarduera asistentziala egiten duten barne-medikuntzako sendagileei, nola justifikatzen ditu 2017an eta 2018an egindako kontratazioetarako exijitu zituen eskakizunak? Izan ere, eskakizun horiek kalte egiten zien eskakizunak bete ez arren kontratazio-zerrenden bidez –hala zegokielako– kontratazio horietan sartzen ahal ziren barne-medikuntzako sendagileei.

4.- García Orcoyen eta Reina Sofía ospitaleetako etxeko ospitalizazioko edota gaixo kronikoen unitateetan jarduera asistentziala egin behar izan duten barne-medikuntzako sendagileen profileko kontrataziorik egin al da 2017az gero? Zenbat egin dira profilarekin eta zenbat profilik gabe? noiz egin dira?

5.- Hiru ospitaleetan profilari buruzko irizpide berberak erabili ez badira kontratazioetan, Osasun Departamentuak nola justifikatzen du ekitate falta hori?

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aldi baterako programatu ezin den ebakuntza jaso behar duten gaixoen kopurua 2021eko martxotik uztaileira bitarte handitu izanari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aldi baterako programatu ezin den ebakuntza jaso behar duten gaixoen kopurua 2021eko martxotik uztaileira bitarte handitu izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zeri zor zaio, zehazki, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan aldi baterako programatu ezin den ebakuntza jaso behar duten gaixoen kopurua 2021eko martxotik uztaileira bitarte handitu izana?

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, kontsultarako itxarote-zerrendetako pertsonen kopurua 2020ko martxoan jaitsi izanari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, kontsultarako itxarote-zerrendetako pertsonen kopurua 2020ko martxoan jaitsi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak nola azaltzen du kontsultarako itxarote-zerrendetako pertsonen kopurua 2020ko martxoan jaitsi izana?

Iruñean, 2021eko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, B eranskinetan inplikaturako profesionalen konfidentzialtasuna bermatzeko babesei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, B eranskinetan inplikaturako profesionalen konfidentzialtasuna bermatzeko babesei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginturako jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak zer babes dauka B eranskinetan inplikaturako profesionalen pribatasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko?

Iruñean, 2021eko abenduaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, egoera irregularrean dauden pertsonen egindako “hitzordutranpei” buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mikel Buil García jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera egoera irregularrean dauden pertsonen egindako “hitzordutranpei” buruzkoa zen,

eta 2021eko azaroaren 23ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-21/POR-00435)

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, irakasle eta ikertzaile funtzionarioen eta kontratatuen lanpostuetarako lehiaketetan emakumeei laguntzeko diskriminazio positiboaren printzipioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, irakasle eta ikertzaile funtzionarioen eta kontratatuen lanpostuetarako lehiaketetan emakumeei laguntzeko diskriminazio positiboaren printzipioari buruzkoa. Galdera 2021eko irailaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, irakasle eta ikertzaile funtzionarioen eta kontratatuen lanpostuetarako lehiaketetan emakumeei laguntzeko diskriminazio positiboaren printzipioari buruz (10-21/PES-00261). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak ematen duen informazioa:

Unibertsitate Sistemari buruzko Lege Organikoaren aurreproiektuak garrantzi handiko genero

ikuskerara eta ikuspegia ezartzen du: zehazki, emakumezkoen ikerketa lanaren sustapena, gobernu organoetako presentzia handiagoa, bateratze neurriak, parekotasuna, eta generoaren arabera eraginari buruzko nahitaezko txostenak. Unibertsitate guztiek sortu beharko dituzte genero berdintasunerako unitateak, oraindik ez badute halakorik.

Ildo horretan, aurreproiektuaren 52. artikulua ekintza positiboko neurriak ezartzen ditu irakasle eta ikertzaile funtzionarioen eta kontratatuen lanpostuetarako lehiaketetan, emakumeen sarrera errazteko, eta adierazten du erreserbak eta lehentasunak ezarri ahalko direla kontratazio-baldintzetan. Hala ere, egokitasun-baldintzak berdinak izanik aplikatuko dira lehentasun horiek, eta kasuan kasuko irakasle kidegoan edo kategorian ordezkari txikiena duen sexuaren aldekoak izanen dira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren 2020ko abenduaren 1eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak erabaki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2021eko abenduaren 10ekoa, non eskatzen baitu 2021eko abenduaren 27an, 28an, 29an eta 30ean goizeko lanaldia ezartzea.

Kontuan izanik aipatu lan-astean ez dagoela aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat, hauxe ERABAKI DUGU:

1. Mahaiaren 2020ko abenduaren 1eko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea;

halatan, 2021eko abenduaren 27an, 28an, 29an eta 30ean lanaldia goizekoa izanen da, betiere zerbitzuen beharriaz beharrezko bidea ematen badute.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2020ko abenduaren 1eko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2021eko abenduaren 27an, 28an, 29an eta 30ean, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

6/2021 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko abenduaren 20an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak igorri du Tributu Harmonizazioari buruzko abenduaren 15eko 6/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren ziurtagiria, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Tributu Harmonizazioari buruzko abenduaren 15eko 6/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, zeinaren bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

6/2021 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horretan, lege testu horren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu; hala ere, aitorpena eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 53.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak eman ditzake tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

Azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege-dekretuaren bidez Europar Batasuneko gai hauetako zuzentarauen transposizioa egin zen: bonu bermatuak, inbertsio kolektiboko erakundeen mugaz haraindiko banaketa, sektore publikoko datu irekiak eta informazioa berrerabiltzea, egile-eskubideen erabilera eta lineako transmisio jakin batzuei eta irrati eta telebistako programen emanaldiei aplika dakizkiekeen antzeko eskubideena, inportazio eta hornidura jakin batzuetarako aldi baterako salbuespenak, kontsumitzaileak eta energiaren aldetik garbiak diren errepideko garraiorako sustapena. Errege Lege-dekretuak, bosgarren liburuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du, zerga arloko barne ordenamenduan txertatzeko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko 2021/1159 (EB) Zuzentaraua, ze-

naren bidez aldatzen baita 2006/112/EE Zuzentaraua, inportazio eta hornidura jakin batzuei aldi baterako salbuespenak ezartzeari dagokionez, COVID-19aren pandemiari erantzuteko.

Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko 2021/1159 (EB) Zuzentarauaren xedea da handitzea Kontseiluaren 2006ko azaroaren 28ko 2006/112/EE Zuzentarauak, balio erantsiaren zergaren sistema erkideari buruzkoak, honako hauek ematen duen salbuespena; ondasunen inportazioak, ondasun-entregak eta zerbitzu-emateak, Europako Erkidegoaren, Energia Atomikoaren Europako Erkidegoaren, Europako Banku Zentralaren edo Europako Inbertsio Bankuaren edo Batasunak sortutako organismoen alde egindakoak, erabilera ofizialerako egindakoak, edo Batzordeak edo Batasunaren Zuzenbidearekin bat sortutako organo edo organismo batek egindako ondasun eta zerbitzu eskurapenak, bere eginkizunak betez COVID-19aren pandemiari erantzuteko xedearekin, baldin eta inportatutako ondasunak eta zerbitzuak ez badira erabiltzen geroago Batzordeak edo salbuespenaren onuraduna den entitateak kostu bidezko entregak egiteko.

Horrela, bermatzen da Europar Batasunak tesuinguru honetan abian jarri dituen ekimenen esparruan hartutako neurrirako oztopo ez izatea ondasun eta zerbitzu eskurapen horiek balio erantsiaren zergak, hots, BEZak, kargatuta egotea, Batasuneko instituzio horiek horren kenkaria egiterik eta, beraz, berreskuratzerik ez dutela.

Bestalde, Batasunaren aurrekontua ahalik eta hobekien erabiltzeko pandemiaren ondorioen aurka, ezarritako salbuespenak atzeraeraginez aplikatu beharko dira 2021eko urtarrilaren 1etik hasita eta mugarik gabeko indarraldiarekin, baldin eta eskurapenak COVID-19aren pandemiaren kontrako borrokari lotzen bazaizkio. Atzera eraginezko aplikazio horrek beharko du kasuan kasuko zuzenketa, BEZari buruzko legean jasotako irizpide orokorren araberrako, subjektu pasiboek egin eta 2021eko urtarrilaren 1etik aplikazioak indarra hartu arte BEZa sortu duten eragiketei dagokionez.

Horrenbestez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu denez, beharrezkoa da Tributu Harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu hau ematea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko, zerga horri dagokionez, Foru Komunitatean aplika daitezkeen estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita bateko

abenduaren hamabostean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 19.9 artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“9. Espainiak onarturiko nazioarteko organismoentzako edo organismo horietako langile izan eta estatutu diplomatikoa dutenentzako ondasun-entregak eta zerbitzu-emateak, organismo horiek sortzen dituzten nazioarteko hitzarmenetan edo kasuan kasuko egoitza-akordioetan finkaturiko baldintza eta muga aplikagarrien barrenean.

Bereziki, zenbaki honetan sartuko dira honako erakunde hauei egindako ondasun-entregak eta zerbitzu-emateak: Europako Batasunari, Energia Atomikoaren Europako Erkidegoari, Europako Banku Zentralari, Europako Inbertsio Bankuari edo Erkidegoek sortu eta Europako Erkidegoen pribilegioei eta immunitateei buruzko 1965eko apirilaren 8ko Protokoloa aplikatzen zaien organismoek (protokolo horrek, bera aplikatzeko akordioek edo egoitza-akordioek ezartzen dituzten mugen barnean eta ezartzen dituzten baldintzei jarraituz). Betiere, ezin izanen da lehian distorsiorik eragin.

Apartatu honetan sartuko dira, halaber, Batzordearentzat edo Batasunaren Zuzenbidearekin bat ezarritako organo edo organismo batentzat diren ondasun-entregak eta zerbitzu-emateak, batzordeak edo organo edo organismo horrek ondasun edo zerbitzu horiek eskuratzen badituzte Batasunaren zuzenbideak esleitutako eginkizunak betez COVID-19aren pandemiari erantzunez, salbu eta eskuratutako ondasun eta zerbitzuak erabiltzen badira, berehalako batean edo geroago, Batzordeak edo organo edo organismo horrek kostu bidezko entregak egiteko”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, ezartzen dituen ondorioekin.

Iruñean, 2021eko abenduaren 15ean

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

